

2019-2020 IKASTURTERAKO TARIFAK. INFORMAZIO OROKORRA

Informazio honen bidez laburtzen da Hezkuntzako Kontseilariaren urtarrilaren 24ko 2/2019 Foru Agindua familientzat ezarri eta araututako tarifak. Tarifa horiek 2019-20 ikasturteko Haur Hezkuntzako lehen ziklorako izanen dira.

Gehieneko tarifa 293 eurokoa da, eta tarifa horrek murrizketak izanen ditu familia unitatearen kideen per capita errentaren arabera. Ondoko taularen arabera, familiak ordaindu beharko du:

Familiaren per capita errenta		GURASO BAKARREKO FAMILIA			BI GURASOEN FAMILIA		
		Hileko tarifa			Hileko tarifa		
		Eskolatzea	Jangela	OSOTARA	Eskolatzea	Jangela	OSOTARA
15.000tik	Goiti	179,00	84,00	263,00	198,00	95,00	293,00
12.400,01etik	15.000ra	152,00	84,00	236,00	169,00	95,00	264,00
10.700,01etik	12.400era	120,00	84,00	204,00	133,00	95,00	228,00
9.300,01etik	10.700era	94,00	84,00	178,00	104,00	95,00	199,00
7.980,01etik	9.300era	74,00	66,00	140,00	82,00	84,00	166,00
6.650,01etik	7.980ra	54,00	66,00	120,00	60,00	84,00	144,00
5.500,01etik	6.650era	48,00	52,00	100,00	54,00	66,00	120,00
4.500,01etik	5.500era	43,00	42,00	85,00	44,00	58,00	102,00
3.350,01etik	4.500era	31,00	32,00	63,00	33,00	56,00	89,00
3.350,00etik	Beiti	18,00	25,00	43,00	20,00	52,00	72,00

➤ Zentrora doazen bi seme-alaba dituzten familiek bigarren kidearengatik dagokien tarifaren % 50eko murrizketa izanen dute. Bigarren hauraren jangelako kuota gutxieneko tarifa izanen da beti. Zentrora 3 seme-alaba edo gehiago eramaten dituzten familiek aurreko atalean ezarritako murrizketa izanen dute.

➤ Urteko per capita errentatzat hartuko da familia-unitatearen errentarekin honakoak zatituta ateratzen den zenbatekoa: pertsona fisikoen gaineko zergaren 2018ko errenta aitoren zerga-oinarria edo, hala badagokio, aitaren eta amaren edo legezko tutoreen diru-sarrera justifikatu guztiak, familiako kide guztien artean zatituta, plaza eskatzen dutenak barne (% 33ko edo gehiagoko minusbalioaren gradu deklaratu duten seme-alaben kasuek 2 kide bezala kontatuko dute).

Ondorio praktikoetarako, errenta kalkulatzeko, honako laukien batuketa hartuko da: Nafarroako Foru Komunitateko 2018 ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren aitoren zerga-oinarria 507, 8810, 8808 laukiak 708 laukiaren kenketa eginda, edo Estatuan baliokide direnak.

➤ Tarifen kalkulua abuztuan egingo da, ikasturtea hasi aurretik, eta ikasturte osoan aplikatuko dira.

➤ Bajak:

1.–Ikasturtea hasi eta hamabost egun natural iraganik ikastetxera azaltzen ez den haurari nahitaezko baja emanen zaio; orobat, ikastetxean hasi eta, justifikaziorik gabe, hamabost egun naturalean jarraian agertzen ez denari. Kasu horietan, entitate titullarrak familiari idatziz jakinaraziko dio baja eman zaiola haurari ikastetxean. Baja gauzatuko da jakinarazpena egin eta hamabost egunean. Familiak ordainduko beharko ditu eskolatzeari eta jantoki zerbitzua erabiltzeari (laguntzailea eta menua) dagokien kuota, baja gauzatzen den egunera artekoa, eta eragindako gastuak konpentsatzeko hilabete bateko kuota.

2.–Ikasturtean zehar borondatezko bajak badira, justifikatuak izan edo ez, idatziz jakinarazi beharko zaizkio ikastetxeko zuzendaritzari hamabost egun lehenago. Kasu horietan, familiek ordainduko dute baja gauzatzen den arteko kuota; eskaera egin eta hamabost egunera gauzatuko da baja.

Ikasturtean zehar justifikatua dagoen baja izaten bada arrazoi hauengatik: seme-alaba gaixotzea, bizilekua aldatzea, langabezia edo ustekabeko diru-premia larria suertatzea, edo ikastetxeko entitate titullarrak horien antzekotzat jotzen duen bestelakoren bat gertatzen bada, fidantza gisa ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.

Bajaren arrazoiak ez bada aurreko kasuetako bat, eta itxaron-zerrenda izanik hutsik gelditutako tokia berehala betetzen bada, familiak ez du ordainduko eragindako gastuak konpentsatzeko hilabete bateko kuota. Hutsik gelditutako tokia ez bada berehala betetzen, familiak hilabete bateko kuota ordainduko du eragindako gastuak konpentsatzeko.

➤ Tokia gordetzeko eskubidea:

Ikastetxean matrikulaturik egonda ume bat ezin bada eskolara joan gaixo dagoelako edo bere gurasoetako bat edo anai-arrebetako bat gaixorik dagoelako, eskubidea izanen du eskolan tokia gordetzeko, ezinbestekoa den denboran kuota ordainduz, betiere dokumentu bidez frogatzen bada.

Eskolara ez joateko arrazoiak behin desagertuta umea ikastetxera joaten ez bada, baja emanen zaio, eta itxaron-zerrendan dagoen lehenbizikoari deituko zaio.

Toki entitateak eskumena izanen du familiak alegatzen duen arrazoiak askitatzeko edo ez hartzeko, baita tokiaren erreserba denbora erabakitze ere.

➤ Familiek ordaindu gabeko kuotak dagokion lege prozeduraren bidez eskatuko dira. Halere, nahitaezko baja emango zaio haurari bi hilabete ordaintzen ez direnean.